





Jendea Everest-eko gertakizunetaz kezkatua ibili da.



Mendiarekiko maitasunak leku askotara eraman du Martin Zabaleta.

joan zen, izan ere, sherpen buru egiten zuenak, 200 mila pezetako pufu bat egina bai zeukan. Honela, hau espediziotik kanpo utzi ondoren, bere ordezkari bat izendatu zuten, hain zuzen, Martin Zabaletarekin batera Everesteko gainera iritxi zena, Pasang Temea.

Sherpa hau ezagutu zuen batek esaten zigunez, 18 urteko mutil gazte baten itxura du, baina 31 urte ditu. Suizan «alta escalada»-n entrenatua, mendirako beste edonor bezain ongi prestatua omen zegoen. Eta guk, sherpa honen izena, espedizioko beste edonorrena bezain letra handiz idatzi nahi genuke, berak beste edonork hainbat lan egin baitu —guk uste, ohizkoa denez, besteak baino gehiago— eta azken finean berak iritxi diren leku berara iritxi baita.

Eta besteekin zer gertatzen da? Martin eta Pasang Temea igo ondoren, beste batzuek igo zezaten dena prest zegoela zioten azken berriek. Baina ez dakigu nola iristen diren berriak, duela 22 bat egun Martin eta Felipe Uriarte oxigeno gabe igotzekotan zeudela esaten ziguten eta ez da horrelakorik gertatu. Dena den, kontutan hartu beharko dugu, 1974eko espedizioan igotzen ahalegindu zirenak, guk lantxo hau idazten gauden unean, ez direla iritxi, baia ahal duten gehienek mendi zorrotz eta eder horren punta zapaldu dezaketela.

Azkenik, erreportaje honetan agertzen ditugun argazki batzuk, Espedizioaren lehen kanpementuan aterakoak direla esan nahi dizuegu. Martinek Everesteko muturrean jarri zituen ikurriña eta beste gainontzeko lemak zeintzuk diren deskubritu dugu: «bieten jarrai» eta enblema antinuklearra.

Zorionak Martin, zorionak partaide guztiok. Lorpen hau ospatzeko herri guztia zuen zai dago.